

Prentsa oharra

Nota de prensa



ZUBI BERRIAREN EGITURA ASTIÑENERA IRISTEN DA

Datorren astean, Astiñene zubi berriaren egitura jarriko da. Zubi horren piezak Ponferradako lantegi batetik iristen ari dira egunotan, eta altzairuz eraiki dituzte.

Obren eremuan, pieza guztiak mihizatuko dira, datorren astean garabi handi batek egitura hori altxa dezan. Egitura hori izango da Urumea ibaiaren gainean Astiñene zubi berria eraikitzeko oinarria, Duñike Agirrezabalaga Hiri Proiektuetako zinegotzi sozialistak adierazi duenez.

Zubi berria izango da diseinu kurbatua izango duen hiriko lehena. Zirkulaziorako bi errei, espaloiak bi aldeetan eta bidegorria izango ditu. Agirrezabalagak adierazi duenez, zubia maiatzaren amaieran hasi ahal izango da erabiltzen. Gaineratu duenez, zubia martxan dagoenean, Astiñeneko zubia eraisten hasiko dira, eta egoera txarrean zegoelako konpondu behar izan zuten.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Zubiak diseinu kurbatua izango du, eta ibaiaren gainean bi zutabe baino ez ditu izango; horrela, ur-goraldien aurrean oztopoak saihestuko dira. Zubi hori egiteko aurrekontua 3,3 milioi eurokoa da, eta Donostiako Udalak eta Uraren Euskal Agentziak (URA) finantzatzen dute.

